

## ***Estigmatizados por la guerra liburuaren aurkezpena***

Ez dut astirik izan gai hau nahi adina lantzeko eta euskal erbesteari buruz beti izango dugu zeresan berririk, baina saiatuko naiz liburuaren aurkezpenaren egun gogoangarri hartako sentipenak azaltzen eta bilera hartan esandako hitzak laburtzen.

Egun pozgarria izan zen benetan, joan zen asteazkenean (2009-VI-10) Bilboko Areetako Plazan izan genuen *Estigmatizados por la Guerra*, nire liburuaren aurkezpena. Zinez urteko egunik zoragarrienetako bat iruditu zitzaidan. Etxeko, herritar, euskaltzain, eta hainbat lagunez inguraturik, eta baita ere, mahaikide izan ziren Andres Urrutia euskaltzainburuaren eta Josune Ariztondo, Bizkaiko Foru Aldundiko kultura arduradunaren laguntzarekin babesturik, abiatu nintzen oso lasai.

Lehenik eta behin, liburuaren goiburuan agertzen den "estigmatizados" hitza aztertzen hasi nintzen. Jarraian, Frantziara eta Iparraldera ihes egin zuten eta Hegoaldean frankismoaren aurka borrokan jarraitu zuten nahigabeen aztarnak plazaratu nituen. Ez nuen garai hartako euskaldun askok erbestean jasandako zauriak irekitzeko asmorik, faxismoa onartu ez zuen herrialde xume baten erbesteratze odoltsua agertzea baizik.

Idazle hauek argi zeukaten euskara, gure arbasoen mende askotako hizkuntza, ez zela alderdi politiko jakin baten ondare eksklusiboa, kultur-altxor bat baizik, asmo oneko euskaldun orok, gutxienez errespetatu beharrekoa. Argi ikusten zuten baita ere, euskara euskaldunen lehen hizkuntza zela, eta horrez gain, Europako mendebaldean oraindik ere irauten zuen hizkuntza ez-indoeuropear bakarra. Beraz, harro sentitzen ziren mende asko zituen hizkuntza honek, Pirinioetako txoko batean bizirautea lortu zuelako.

Idazle hauen iritziz, euskara erabat desagertzea ez litzateke inolaz ere axolagabea izango euskaldunontzat eta sentipen mingarriak ekarriko lituzke Euskal Herrira. Gaurko euskaldunok zordun gara, haiei esker, Euskal Herrian geratu ziren idazleak erbestean argitaraturiko liburuez baliatzeko aukera izan zutelako. Horrela erne zen hemen belaunaldi bat, "erresistentziako belaunaldia," Askatasunaren aurrelari hauek erbestean ereindako hazitik sortua.

Liburu hau egiterakoan: hiru motatako iturriak erabili ditut: "Sancho el Sabio" Gasteizko aldidizkarian 90. hamarkadan idatzitako artikuluak; "Hamaika Bide Elkarte"-rako egindako lantxoak eta azken denboraldian bukatu ditudan lanak. Orotara 43 euskaldunen "bosquejos biográficos" agertzen dira: 24 gipuzkoar, 13 bizkaitar, 4 arabar, lapurtar bat eta nafartar bat.

Euskaltzaindiari (Andres Urrutia eta Nere Altuna), Mertxe de Renobales emazteari eta ekitaldira etorri zen jende guztiari eskerrak eman ondoren, liburu honen "bateoa" amaitutzat eman genuen. Denontzat onuragarria izan dadila!

Gorka Aulestia Txakartegi